

Bittor Madina Alzola
Oñati, Gipuzkoa (1944)

Aurkibidea

Biografia

Ama Lezesarri auzoko Jaumendi baserrikoa zuen, aita Arantzazu kaleko Txorinekoa eta hantxe bizi izan ziren. Oinarrizko ikasketak erdaraz egin zituen Bittorrek: urtebete Karitatearen Alaben Kongregazioko mojekin ospitaleko eskolan, 6tik 10 urte bitartean Maristetan eta ondoren agustinotan. Agustinotan abade ikasketak egin zituen Haron eta Oñatin, eta lau urte Erroman pasatu zituen. Oñatira bueltatu zenean, 1967an, irakasle hasi zen agustinotan. Ikastola sortu berria zen eta Bittor euskararen aldeko lanetan hasi zen, ikastolako irakasleen arrimuan. Gau eskolan irakasle eta metodologia berriak ikasteko tailerrak egiten, besteak beste. Agustinoak utzi, eta Gasteizen Irakasle-ikasketak ikasi ondoren, eskola publikoan hasi zen lanean. Lan handia egin du eskola publikoan D eredia ipintzeko. Oñatin lau urte egin zituen eta gero Berrobira joatea egokitu zitzaion oposizioak gainditu ondoren; han egon zen maisu, erretiroa hartu zuen arte (oso maitea herrian, omenaldia ere egin zioten). Berrobin egin genion elkarrizketa.

Zintak

ONA-326

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Oñatin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2026-03-13
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ONA-327

- **Proiektua:** Roberto Altunaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1993-01-25
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

ONA-328

- **Proiektua:** Roberto Altunaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1993-01-25
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com